

# Egoeraren Azterketa



*Egoera sozial eta ekonomikoaren azterketa*

**Ekonomiaren  
zalantzazko etorkizuna**

**Enplegua ez da suspertzen**

**Lan-erreformaren ostean, behin-  
behinekotasuna areagotu egin da**

**Langabezian daudenen %36,5ek  
ez dute prestaziorik kobratzen**

**KPIaren ginetik  
negoziatzearen garrantzia**

**Plan Moderna delakoaren balorazioa**

# Hego Euskal Herriko (\*) lan eta ekonomi egoeraren adierazleak

	DATUA	ERREFERENTZI ALDIA	12 HIL. LEHENAGO
<b>ENPLEGUA ETA LANGABEZIA</b>			
JARDUERA TASA (%)	74,4	2010.ko IV HIRUHILEKOA	73,5
JARDUERA TASA 27-EUROPAKO BATASUNEAN (%)	71,3	2010.ko III HIRUHILEKOA	71,3
LANEAN DAGOEN BIZTANLERIA	1.201.800	2010.ko III HIRUHILEKOA	1.189.600
SOLDATAKO BIZTANLERIA	1.014.300	2010.ko IV HIRUHILEKOA	991.800
ALDI BATERAKO TASA (%)	23	2010.ko IV HIRUHILEKOA	22,1
ALDI BATERAKO TASA 27-EUROPAKO BATASUNEAN (%)	14,4	2010.ko III HIRUHILEKOA	13,8
BIZTANLERIA LANGABETUA	150.300	2010.ko IV HIRUHILEKOA	155.400
LANGABEZI TASA (%)	11,1	2010.ko IV HIRUHILEKOA	11,5
LANGABEZI TASA 27-EUROPAKO BATASUNEAN (%)	9,4	2010.ko III HIRUHILEKOA	9,1
GAZTEEN LANGABEZI TASA (%)	30	2010.ko IV HIRUHILEKOA	34
GAZTEEN LANGABEZI TASA 27-EUROPAKO BATASUNEAN (%)	20,7	2010.ko III HIRUHILEKOA	19,6
EMAKUMEEN LANGABEZI TASA (%)	11,8	2010.ko IV HIRUHILEKOA	12,3
EMAKUMEEN LANGABEZI TASA 27-EUROPAKO BATASUNEAN (%)	9,5	2010.ko III HIRUHILEKOA	9
SINATURIKO KONTRATUAK	924.588	2010.ko URTAR.-ABENDUA	874.649
KONTRATATU MUGAGABEAK	64.414	2010.ko URTAR.-ABENDUA	67.619
<b>ENPLEGU ERREGULAZIOA</b>			
ONARTURIKO FITXAK	2.327	2010.ko URTARRILA-AZAROA	3.109
ERAGINDAKO LANGILEAK	44.689	2010.ko URTARRILA-AZAROA	91.391
<b>LAN ISTRIPUAK</b>			
ISTRIPUAK GUZTIRA	INFO. FALTA	2010.ko URTAR.-ABENDUA	INFORMAZIO FALTA
HILDAKO PERTSONAK	80	2010.ko URTAR.-EKAINA	INFORMAZIO FALTA
<b>ESKAINNTZA ETA ESKARIA</b>			
INDUSTRI PRODUKZIOA EAEn (%ALD.)	2,3	2010.ko ABENDUA	-21,4
BPGd EAEn (%ALD.)	0,8	2010.ko IV HIRUHILEKOA	-3,1
BPGd NAFARROAN (%ALD.)	1,9	2010.ko IV HIRUHILEKOA	-1,8
BPGd ESPAINIAR ESTATUAN (%ALD.)	0,6	2010.ko IV HIRUHILEKOA	-3,9
BPGd 27-EUROPAKO BATASUNEAN (%ALD.)	2,1	2010.ko IV HIRUHILEKOA	-2,2
<b>PREZIOAK</b>			
URTEARTEKO KPIa ESPAINIAR ESTATUAN (% ALD.)	3,3	2011.ko URTARRILA	1
URTEARTEKO KPIa 27-EUROPAKO BATASUNEAN (%ALD.)	2,6	2010.ko ABENDUA	1,5
<p>* Adierazleak Hego Euskal Herriari dagozkio. Bestelako kasuan lurraldea zehaztuko da.</p> <p>* Enplegu eta langabeziko datuak, 16 eta 65 urte bitarteko adin tarteari dagozkie. Bestela, adin tartea zehaztuko da.</p> <p>Iturriak: Eustat, Nafarroako Estatistika Erakundea, Eurostat, Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, Osalan, Instituto Navarro de Salud Laboral, Instituto Nacional de Empleo, Instituto Nacional de Estadística, ELAko Lan Osasun Alorra</p> <p>2011/02/11ean eguneraturiko informazioarekin</p>			



# Aurkibidea

## EGOERAREN AZTERKETA

1. Ekonomiaren bilakaera.....4
2. Enplegua ez da suspertzen .....4
3. Behin-behinekotasunak  
gorantz jarraitzen du .....5
4. Langabeziaren bilakaera  
ezberdina, iturriaren arabera.....6
5. Langabetuen %36,5ek  
ez dute inolako  
prestaziorik jasotzen .....7
6. Prezioen igoera.....7

## PLAN MODERNA

### DELAKOAREN BALORAZIOA

1. Moderna Fundazioaren  
xedea eta egitura.....9
2. Finantzaketa .....10
3. Ekintzen alderdi  
azpimarragarriak .....10
4. ELAren balorazioa .....11

## ERABILITAKO SIGLAK

HEH	Hego Euskal Herria
EAE	Euskal Autonomi Erkidegoa
EB	Europako Batasuna
ELGE	Ekonomi, Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea
BPGd	Barne Produktu Gordina
KPI	Kontsumorako Prezioen Indizea
BAI	Biztanleria Aktiboaren Inkesta
PII	Produktzio Industrialaren indizea
Eustat	Euskal Estatistika Institutua
NEI	Nafarroako Estatistika Institutua
EIN	Estatistika Institutu Nazionala
BJA	Biztanle Jardueraren Azterketa

# EGOERAREN

A Z T E R K E T A

## Sarrera

Egoeraren azterketa honetan, besteak beste, ekonomiaren zalantzazko bilakaerari, enpleguak 2010ean izan duen joerari, lan-erreformak behin-behinekotasunean izan duen eraginari eta langabetuek nozitzen duten babesgabeziari erreparatuko diegu.

*\* Txosten hau 2011ko otsailaren 17an eguneraturiko informazioarekin burutua izan da*

# Egoera sozial eta ekonomikoaren azterketa

## 1. Ekonomiaren bilakaera

Azken datu ekonomikoek erakusten dutenaren arabera, krisiak 2009ko bigarren hiruhilekoan jo zuen behereneko maila, eta 2010eko bigarren hiruhilekotik aurrera, berriz, BPGd-a handitzen ari da Hego Euskal Herrian (HEH).

2010eko laugarren hiruhilekoko datuek agertzen dutenez, Nafarroan BPGd-ak %1,9ko urte arteko gehikuntza izan zuen, aurreko hiruhilekoan baino 0,3 puntu gehiagokoa, hain zuzen. EAEk 0,8 puntuko hazkundera izan du BPGd-ean, aurreko hiruhilekoan baino 0,2 puntu gehiago. Espainiako Estatuak BPGd-aren hazkundera txikiagoa agertzen du, %0,6koa, aurreko hiruhilekoan baino %0,4 handiagoa, izan ere. 27-EBn, BPGd-ak %2,2ko gehikuntza izan zuen 2010eko hirugarren hiruhilekoan, eskura dauden azken datuak ordukoak baitira.

2010eko bilakaerari dagokionez, Nafarroa 2009ko laugarren hiruhilekoan zehar izandako %0,8ko gehikuntza negatibotik 2010eko laugarren hiruhilekoko %1,9ko hazkundera positibora iragan da (3,7 puntuko aldea). EAEn jazotako diferentzia handixeagoa izan da (3,9 puntukoa), aipatutako aldi horretan -%3,9tik %0,8ra igaro baita. Espainiako Estatuan, diferentzia 3,6 puntukoa izan da, 2009ko ekitaldiaren amaierako BPGd-a -%3,0koa eta 2010aren amaierakoa, berriz, %0,6koa izanik. 27-EBn, oster, 2010 urtean 2009ko aldi berekoa baino, 4,3 puntu handiagoa izan da BPGd-aren urteko bilakaera (-%2,2tik %2,1era pasatu da).

Datuek nolabaiteko joera positiboa agertzen duten arren, ikusteko dago ekonomiak aurrerantzean izango duen bilakaera. Gastu publikoa murrizteko politika orokortuak, ezinbestez, moteldu egiten ditu bai ekonomia, bai enplegua. Horixe egiaztatu daiteke emaitzarik okerrera murrizketak izan diren estatuetan eman baitira (Grezia, Irlanda, Errumania, espainiar estatua).


2010eko maiatzean Greziak onartu zuen doikuntza ekonomikoko planean, honako alderdi hauek jaso ziren, batez ere: Administrazio Publikoan diharduten langileen soldaten jaitsiera, pentsioen murrizketa, emakumeen erretiroko adina bost urte atzeratzea, eta BEZ zergaren tasa nagusiari bi puntu gehitzea.

Bada, izan ere, doikuntza gogor horren ostean, Greziako ekonomiak okerrera egin du. 2010eko lehenengo hiruhilekoan, doikuntza-plana ezarri baino lehen, Greziako BPGd-ak %2,7ko hazkundera negatiboa zuen, urte osoko balioa are okerragoa izan da, %6,6ko hazkundera negatiboarekin. Maila horiek Greziako BPGd-ak krisiaren hasieratik izan dituen baxuenak izan dira, eta, ikusten denez, bertako ekonomiak gehiago murrizteko joera agertzen du.

Gauza bera gertatu da Irlandan, BPGn-a %0,7a txikiagotu den hortan, Errumanian, %0,5eko jaitsierarekin, eta espainiar estatuan, BPGn-a 2010 aipaturiko %0,6a hazi denean.

Hori dela eta, politika aldatzea eta gizarte-gastua (gizarte-babeserako eta zerbitzu publikoetarako gastua) handitzea eskatzen die ELAK administrazioei. Modu horretan baino ezingo dugu gizarte-beharrizanen estalduran eta enplegu-sorreran oinarrituriko eredu ekonomiko baterantz jo.

### Merkatuko prezioen araberako BPGd-a, urte arteko hazkundera tasak (%). 27-EB, EAE, Nafarroa, Espainiako Estatuak, 2009-2010



Iturriak: Eurostat, Eustat, NEI, INE

## 2. Enplegua ez da suspertzen

2010eko laugarren hiruhilekoan, lana baduen edo modu aktiboan bilatzen ari den biztanle-portzentajea (jarduera-tasa) %74,4koa izan da Hego Euskal Herrian; horrek esan nahi du tasa 0,3 puntu igo dela, aurreko hiruhilekoari buruz. Gizonen jarduera-tasa %80,5koa izan da (0,6



puntu baxuagoa), eta emakumeena, %68,3koa (1,3 puntu igota).

Europari begiratuz, bertako jarduera-tasa %71,3koa izan da 2010eko hirugarren hiruhilekoan (azken datua ordukoa baita); horrek adierazten duenez, %0,2ko gehikuntza izan du azken hiruhilekoan.

Urteko bilakaerari dagokionez, jarduera-tasak 0,9 puntuko igoera izan du 2009ko azken hiruhilekoaz gero.

Urte amaieran, lanean dabilen biztanleria 1.201.800 lagunek osatzen zuten, hots, aurreko hiruhilekoan baino 1.900 lanpostu gehiago egon ziren. Lanpostu horien %54,6an, hau da, 656.300 lanpostutan (aurreko hiruhilekoan baino 9.100 gutxiago dira) gizonetzkoek jardun dute, eta %45,4an, 545.500etan (hiru hilabete lehenago baino 7.200 gehiagotan), emakumezkoek.

Sektoreka aztertutik, 20.900 lagun (lanean dabilen biztanleen %1,7) lehen sektorean aritu dira; 87.000 (%7,2), eraikuntzan; 276.400 (%23), industrian, eta 817.600 (%68), zerbitzuetan.

Sektorekako bilakaera ezberdina izan da azken hiruhilekoan. Jaitsiera handiena eraikuntzak jasan du, 5.000 langile gutxiagok (%5,4 gutxiagok) baitihardute bertan. Industrian dabilen langileak 2010eko hirugarren hiruhilekoan baino 1.600 gutxiago (%0,6 gutxiago) dira. Zerbitzuen sektorean diharduten langileak, ordea, 4.700 gehiago (%0,6 gehiago) izan dira, eta lehen sektorean, 100 gehiago (%0,4 gehiago).

Urteko bilakaerari erreparaturik, lanean dabilen pertsonak 12.200 gehiago dira, 1.189.600dik 1.201.800era igarota.

Soldatapeko biztanleria 1.014.300 lagunek osatu dute; horren arabera, azken hiruhilekoan, soldatako 9.600 lanpostu galdu dira. Soldatako lanpostuen guztizko kopurutik, gizonari 532.600 dagozkie (14.200 gutxiago), eta emakumeei, 481.700 (4.600 gehiago). Hortaz, soldatako lanpostuen %52,5ean dabilen gizonak, eta %47,5ean, emakumeak.

Urteko zenbaketa eginez, aldiz, bilakaera ezberdina ageri da, 25.400 laguneko gehikuntza dago eta.

### 3. Behin-behinekotasunak gorantz jarraitzen du

Behin-behinekotasun tasa %23koa izan da, urtealdiko laugarren hiruhilekoan 0,1 puntu eta 2009aren amaieraz gero 0,9 puntu hazi ostean. 2010ean zehar, gizonen behin-behinekotasun tasa areagotu egin da, 2009aren amaierako %18,9tik 2010eko laugarren hiruhilekoko %20,7ra igaro baita. Emakumeen behin-behinekotasun tasak -gizonena baino altuagoa- berdintsu iraun du (%25,8, 2009ko laugarren hiruhilekoan, eta %25,7, 2010eko epealdi berean). Gazteen behin-behinekotasun tasa, bestalde, %57,2koa izan da.

Behin-behinekotasuna 27-EBko batez bestekoa (%14,4, 2010eko hirugarren hiruhilekoan) baino 8,6 puntu handiagoa da. Europar Batasunean, aldi baterako kontratatutako emakumeak %15 dira, eta gizonak, %13,9.

Kontratazioak 2010ean izan duen bilakaerari gagozkiola, sinatutako lan-kontratuen %93 aldi baterakoak izan dira, 2009an baino 0,7 puntu gehiago, alegia.

#### Lan kontratu mugagabeak eta aldi baterakoak (%). HEH, 2009-2010

	2009	2010
Aldi baterakoak	92,3	93,0
Mugagabeak	7,7	7,0

Iturria: Estatuko Lan Zerbitzu Publikoa

Aldi baterako kontratuetan, 2010ean maizen erabili den kontratu-mota ekoizpen-beharretarako behin-behineko kontratua izan da (aldi baterako kontratu guztien %40,8); obra- edo zerbitzu-kontratuak guztizkoaren %33,3 izan dira, eta bitarteko lan-kontratuak, %23,8.

Generoa kontuan harturik, 2010ean sinatutako behin-behineko kontratuen %55,2 emakumeei dagozkie.

Aitzitik, obra- edo zerbitzu-kontratu guztien %61,4 izan dira gizonen sinatutakoak, bai eta ekoizpen-beharretarako kontratuen %52 eta aldi baterako beste kontratuen %60,9 ere.

Emakumezkoak bitarteko lan-kontratuetan baino ez dira gehiengoak, horien %75 dagozkielarik.

Gogoan izan behar dugu mota horretako kontratuen iraupena laburra izaten dela, eta, kontratua amaitutakoan, ez dela kalte-ordainik jasotzen (obra- edo zerbitzu-kontratuak eta ekoizpen-beharretarakoek, ordea, bai dakarte eskubide hori, urtebete baino gehiago irauneko gero).


## Aldi baterako lan kontratuak, kontratu moten eta generoaren arabera (%). HEH, 2010

	Emakumeak	Gizonak
Obra edo zerbitzua	38,6	61,4
Ekoizpen-beharretarakoa	48,0	52,0
Bitartekoa	75,0	25,0
Beste batzuk	39,1	60,9
Guztira	55,2	44,8

Iturria: Estatuko Lan Zerbitzu Publikoa

Aldi baterako kontratazioak azken 5 urteetan izan duen bilakaerari begiratzean, 2,8 puntuko gehikuntza (%90,2tik %93rako) ikusten da. Horrez gain, aldi baterako kontratuetan (kontratu mugagabeen kaltetan) izandako hazkunde hori are biziagoa egin da azken bi urteetan, 2009an 1,4 puntu eta 2010ean 0,7 hazi dira eta.

## Aldi baterako kontratazioaren bilakaera (%). HEH, 2006-2010



Iturria: Estatuko Lan Zerbitzu Publikoa

Halaber, Estatuko Lan Zerbitzu Publikoak argitaratutako datuak erakusten dutenez, 2011ko urtarrilean aldi baterako sinatutako lan-kontratuak %91,7 izan dira.

Bestalde, Madrilen Ministro Kontseiluak otsailaren 11an onartu zuen Premiazko Plana. Izan ere, plan honek sistemaren baliabideak gutxitzea

suposatzen du alde batetik (enpresek gizarte-kotizaziorik ez ordaintzeko aukera ematen baitu), eta bestetik, lanaldi partzialeko enplegua sustatuko da, hots, pentsioen erreformari esker erretiro duina izateko aukera ia ezinezko egingo duen enplegu mota.

Ministro Kontseiluan onartu dutenarekin legean jaso da Itun Sozial eta Ekonomikoan (ISE) aurreikusita zegoena. Gai honetan, pentsioetan bezala, CCOOek eta UGTk aldarrikatu zituzten marra gorri guztiak irentsi dituzte. ISE sinatu baino lehenago zioten onartu ezinekoa zela gobernuaren asmoa (lanaldi partzialeko kontratuak eta aldi baterakoak diruz laguntzea). Bada, horixe ebatzi du gaur gobernuak, eta hori bera zegoen ISEn.

Bestalde, Gobernuak erabaki du ere 426 euroko laguntza amaituta, Efektu Anitzen Errentako Adierazle Publikoaren (IPREM gaztelaniaz) %75eko laguntza (hots, 399,4 euro) gehienez 6 hilabeterako emateko aukera jasotzen duen programa bati ekitea. Honi dagokionez, aipatzekoa da hau aurrekoa baino murriztagoa dela, eta emango dituen diru-sarrerak lehengoak baino eskasagoak izango direla. Hitz gutxitan, Zapateroren Gobernu ezartzen ari den eskubide sozialak murrizteko politikari babesa ematen zaio.

## 4. Langabeziaren bilakaera ezberdina, iturriaren arabera

BAIren arabera, 2010aren amaieran, 150.600 langabe egon dira, laugarren hiruhilekoan 7.800 lagun gehitu ostean. Langabezian daudenetik, gizonak 77.800 dira (aurreko hiruhilekoan baino 3.200 gehiago), eta emakumeak, 72.700 (4.500 gehiago). Urteko zenbaketa eginez, langabeen kopurua 6.700 hazi da.

Era horretan, langabezia-tasa %11,1koa izan da, hots, aurreko hiruhilekoan baino %0,5 altuagoa. Horren barruan, gizonen tasa %10,6koa (0,5 puntu gehiago) eta emakumeena %11,8koa (0,6 puntu gehiago) izan dira. Gazteen langabezia-tasa, bestalde, %30koa izan da (0,8 puntuko gehikuntza izan du, aurreko hiruhilekoaren aldean).



27-EBko langabezia-tasa %9,4koa izan da 2010eko hirugarren hiruhilekoan, argitaratutako azken datua dagokion horretan. Gazteen langabezia-tasa, berriz, %20,5koa da European, HEHn baino 9,5 puntu baxuagoa, alegia, eta emakumeena, %9,5koa, HEHn baino 2,3 puntu beherago dago.

Dena dela, BAIk argitaratutako datuen ordez, Lan Zerbitzu Publikoak langabetzat hartzen dituenen zerrendak aztertuz gero, langabeziaren bilakaera ezberdina, eta txarragoa, ageri da. Horren arabera, 2011ko urtarrilean, HEHn, 188.268 egon dira, aurreko hilabetean baino 9.296 gehiago, eta 2010eko urtarrilean baino 9.303 gehiago. Hau da, %5,2 hazi da, azken hamabi hilabeteetan.

Lurralde lurralde begiratuta, EAEn, 143.118 langabe ageri dira Lan Zerbitzuaren zerrendetan, hots, duela urtebete baino %5,5 gehiago (2010eko urtarrilean, 135.687 pertsona zeuden). Nafarroan, 45.150 izan dira langabeen zerrendetan jasotakoak, 2010eko hil berean (zeinetan Lan Zerbitzu Publikoaren zerrendetan 43.278 lagun zeuden) baino %4,33 gehiago, alegia.

## 5. Langabetuen %36,5ek ez dute inolako prestaziorik jasotzen

Abenduan (argitaratutako azken datuari dagokionean), Lan Zerbitzu Publikoaren zerrendetan langabe gisa ageri diren 178.972 pertsonetatik 65.364k ez dute inolako prestaziorik eskuratu. Hau da, langabetuen %36,5ek ez dute ez prestaziorik, ez sorospenik jasotzen.

Langabezian dauden pertsonen %38,9k baino ez dute kotizaziopeko prestazioa jaso. Prestazio hori kobratzeko eskubidea izateko, hainbat baldintza bete behar dira, eta prestazioaren zenbatekoa eta iraupena onuradun bakoitzak egindako kotizazioen arabera dira. Horrelako prestazioak dagoeneko jasotzen ez diren soldata-errenten ordezkoak dira neurri batean, nahiz eta askoz txikiagoak kopuruz.


Langabetuen %24,6k jasotzen duten prestaziomota, ordea, ez da kotizaziopekoa, laguntzazkoa baizik, eta horren xedea gutxienezko diru-sarrerak bermatzea da. Horrelako prestazioen zenbatekoa

urri-urria izaten da; kotizaziopeko edozein prestazio baino are txikiagoa ere bai.

Azken urtean, HEHn, 6,0 puntu hazi da inolako prestaziorik jasotzen ez duten pertsonen kopurua, %30,5etik %36,5era igaro baita. Kotizaziopeko prestazioak hartzen dituzten pertsonak %6,4 gutxiago izan dira (%45,3tik %38,9ra jaitsi da), eta kotizazio gabeko prestazioren bat jasotzen duten pertsonen kopurua 0,4 puntu hazi da (%24,2tik %24,6ra).

Bilakaera erakusten duen legez, langabezian dauden pertsonen egoera gero eta txarragoa da, inolako laguntzarik jasotzen ez dutenen kopurua eta prestazio txikiagoak hartzen dituztenena hazi egin baitira, prestazio handienak kobratzen dituzten pertsonen kopurua gutxitu egin delarik.

### Langabezia prestazioak jasotzen dituzten pertsonak (%). HEH, 2010eko abendua



Iturria: Estatuko Lan Zerbitzu Publikoa


## 6. Prezioen igoera

Prezioek urte arteko %3,0ko igoera izan dute 2010eko abenduan, Espainiako estatuan. 27-EBko igoera, berriz, %2,6koa izan da.

Hurrengo grafikoak KPIak azken urtean izan duen bilakaera erakusten du. Bertan ikusten denez, urrian eta azaroan, estatuko prezio-igoera eta 27-EBko batez bestekoa (%2,3) berdina izan dira, baina Espainiako estatukoa gehiago hazi da abenduan: %3, zehazki, 27-EBko %2,6ko batez besteko igoeraren aldean.

Horren inguruan, gogora ekarri behar dugu 2009ko urrian estatuko urte arteko KPIa negatiboa (-%0,7) izan zela, 27-EBkoak 0,5 puntuko gehikuntza izan zuelarik. Beraz, 15 hilabetean, Espainiako estatua -%0,7ko balio negatibotik oraingo %3ra igaro da, Europako ingurunea %0,5etik %2,6ra iragan den artean.

**KPIaren urte arteko igoerak (%). 27-EB, Espainiako Estatua, 2010**



Iturria: INE, Eurostat

2011ko urtarrilean, KPIaren goranzko joerak jarraitu du, eta prezioak %3,3 igo dira urte-artekoan. Igoera honen arrazoi nagusia Zapateroren gobernuak onartutako argi indarraren prezioaren %9,8ko igoera da. Neurri hau guztiz onartezina da, eta gizartea guztia kaltetzen du, bereziki hilabete amaierara ailegatzeko okerren ibiltzen direnak, enpresa elektrikoei mesede egiteko, beraien mozkinak, jada, neurri gabekoak direnean.



# Hileko puntako gaia: Plan Moderna delakoaren balorazioa



Langileriari inoizko erasorik bortitzena egiten ari zaio. Krisiaren eraginez, langabezia nabarmenki handitu da. Enpresariak behin-behinekotasuna hedatzen ari dira. Instituzioak (Nafarroako Gobernua, Eusko Jaurjaritza eta Espainiako Gobernua) norberaren doikuntza-politika (gastu publikoaren, langile-kopuruaren, gizarte-gastuaren eta abarren murrizketa) denetan gogorrena dela erakusteko lehian dabilta. Lan-eskubideen beste murrizketa bat onartu berri dute, eta pentsioetan ere doikuntzak iragartzen ari dira berriro.

Gauzak horrela daudela, Nafarroako Gobernuak eta UPNk, PSNk, Nafarroako Unibertsitateak, Nafarroako Unibertsitate Publikoak, Nafarroako Enpresarien Konfederazioak, UGTk eta CCOOK Moderna Plana deiturikoa adostu dute.

Gizarte-elkarrizketa, hasieratik, pribatizazioarekin eta zenbait baliabide publikoren kudeaketa eskusibotasunez esleitzearekin egon da loturik. Nafarroan, eredu hori aspaldidanik ari dira aplikatzen, hainbat adibide asaldagarrik frogatzen dutenez: lanbide-prestakuntzak, lan-osasunak, immigrazio-politikek, gazteriarekin loturikoek, etxebizitza babestuen ingurukoek...

Moderna Plana norabide berean doan beste urrats bat da. Plan horrekin bermatzen den gauza bakarra baliabide eta eginkizun publikoak kudeatzeko esparru pribatu eta mugatu bat sortzea da.

## 1. Moderna Plana. Moderna Fundazioaren xedea eta egitura

Sinatzaileen arabera, Moderna Plana bere sortzaileek 20 urteko epean —2030ari begira, alegia— Nafarroarentzat lortu nahi dutenaren isla da. Ildo horretan, helburu orokor batzuk ez ezik, eurek diseinatutako ekonomia-eredura heltzeko ekintza sektorial zehatzago batzuk ere jasotzen dira Planean. Testuak berak dioenez, «Nafarroaren Garapen Ekonomikorako Eredu berria da».

Moderna Planak biltzen dituen jarduketak garatzeko, Moderna Fundazioa eratu da, hots, Planaren sustatzaileek (hau da, Nafarroako Gobernuak-UPN, PSN, NUP (Nafarroako

Unibertsitate Publikoa), UN, CEN, CCOO eta UGTekin batera) eta postu zehatz batzuetarako izendatutako «adituek» osatutako fundazio pribatua.

Hiru jardun-ildo orokor taxutu dira Fundazioarentzat: «osasunaren ekonomia», «ekonomia berdea» eta «talentuaren ekonomia» deritzenak, eta hainbat programa eta garapen-arlo itxuratu dira, hiru ardatz horien inguruan.

Moderna Planaren funtsa aipatutako esparru horietako jarduketak, Administrazio Publikoak zuzenean kudeatu beharrean, erakunde pribatu batek (Moderna Fundazioak) kudeatzea da.

Fundazioa itxuratuko duen organigraman, erakunde fundatzaileek eta beroriek izendatutako pertsonak bakarrik izango dute tokia. Honelako egitura izango du:

- Fundazioko presidentea Nafar Gobernuko presidentea izango da. Bera izango da, halaber, Patronatuko burua, hots, esparru publiko deritzotenaren 13 ordezkari (Nafar Gobernuko 4 kidek, Parlamentuko 3 kidek eta erakunde sustatzaileetako kide banak) eta esparru pribatua ordezkatzeko duten beste 13 pertsonak («ospe onetsiko profesionalak eta enpresariak») osatutako organoko burua.
- Jarraipen- eta koordinazio-zereginak beteko dituen Batzorde Iraunkor bat eratu da. Gobernuko 2 kidek, erakunde sustatzaileetako 7 kidek eta Nafarroako Gobernuak proposatutako pertsona ospetsuetako bostek osatuko dute Batzorde hori.
- Zuzendari Nagusi bat egotea aurreikusten dute. Pertsona hori Batzorde Iraunkorrak izendatuko du, Moderna Plana kudeatu, garatu eta gauzatzeko.
- Koordinazio Taldea «aurretiaz zehaztutako profil pertsonal eta profesionaletan oinarrituz» aukeratutako 5etik 7ra lagunek osatuko dute, eta Zuzendari Nagusiaren agindupean arituko dira, Moderna Planaren eraginpeko arloetan.
- Kontsulta Batzorde bat ere eratu da, hau da, Fundazioari aholku emateko aditu-talde bat.

- Planean adierazten denaren arabera, lan-esparru garrantzitsuena kudeaketa-arloetako lan-mahaiak izango dira. Mahai bakoitzak buruzagi publiko edo pribatu onetsi bat izendatuko du, lana koordinatzeko.

Moderna Planak jasotzen duenez, Fundazioak kudeatuko ditu laguntza eta zerbitzu batzuk, hala nola:

- Ekintzaileentzako beka: «Negozio-idea on bat» duenarentzako ordainsaria da. Beka hori Fundazioak emango du, erakunde pribatu berorrek egingo duen hautapen-lehiaketaren ostean.
- Inbertitzaileen foroa: Ekintzaileen eta inbertitzaileen arteko artekaritza-zereginak betetzeko.
- Inbertsio-kidetzako fondoak: Enpresa pribatuetan inbertsio partzial eta gutxiengokoak -hau da, beraien kontrola hartzera iritsi gabe- egiteko fondoak dira, eta enpresa horiei hazteko aukera ematea dute xede.
- Finantzaketa-lineak: Kreditu Ofizialeko Institutuarekin (KOI) eta Europako Inbertsio Bankuarekin (EIB) egindako akordioetatik etorri eta erabilgarri dauden fondo guztiak, orain artean Nafarroako Gobernuak kudeatzen dituenak, Moderna Fundazioaren esku jarriko dira, berorrek kudeatu ditzan. Horrez gain, beste baldintza bat ezarri da: fondook eskuratu nahi dituen proiektuak «Moderna proiektua» delako kalifikazioa lortu beharko du.
- Proiektuak finantzatzeko abala: Abal horretan, Nafarroako Gobernuak arriskuaren zati bat hartzen du bere gain, finantzaketa erraztearren.

## 2. Finantzaketa

Moderna Plana kapital publikoz eta pribatuz finantzatzeko asmoa dute. Horrek esan nahi du beraren aurrekontuaren zati bat diru publikoa izango den arren, beste zati batek eremu pribatutik etorri beharko lukeela.

Era horretan, gauzatuko diren ekintza espezifikoetarako, finantzaketa pribatua bilatuko

dute, eta ekintzok proposatzen dituenak egin beharko du eurak abian jartzeko behar den diru-ekarpena. Ekarpene horiek nahikoak ez badira, Koordinazio Taldeak bilatuko ditu fondoak, eta, azken buruan, Fundazioari eskatuko zaizkio.

Interes orokorreko ekintzak burutzeko, finantzaketa mistoa bilatuko da. Eta Fundazioak gauzatzen dituen baina Nafarroako Gobernuari dagozkion eginkizunetakoak diren ekintzen kasuan, Gobernuak aurrekontu-programetatik desbideratuko du beste partida batzuei esleitutako dirua, Fundazioari emateko.

Nahiz eta eremu pribatuak ere parte hartu finantzaketan, hasieran, Moderna Planerako behar den aurrekontu guztia altxor publikotik helduko zaie. Eta, horretarako, desbideratu eta birprogramatu egingo dituzte aurrekontu publikoetan ekintza eta zerbitzu publikoetarako zehaztutako partidak, gastu publikoa handitu gabe.

Halaber, fondo pribatuak erakartzeko asmoa aipatzen bada ere, akordioa sinatu duten erakundeek, Nafar Gobernuak izan ezik, ez dute Plana fondoz hornitzeko konpromisorik hartu.

## 3. Ekintzen alderdi azpimarragarriak

Moderna Planak bi motatako ekintzak bereizten ditu, bere helburuak lortzeko begira. Alde batetik, interes orokorrekoak daude (zeharkakoak deritzenak eta, bestetik, sektorialak (ekintza estrategikoak).

Interes orokorreko ekintzen barruan, hezkuntzarekin, Administrazio Publikoarekin, I+G+b-arekin, kultura ekintzailearekin, internazionalizazioarekin eta azpiegiturekin loturikoak ageri dira. Sail horren baitan, honakoa nabarmendu daiteke:

- «Hezkuntza, talentua eta giza kapitala» atalari dagokionez, jakintza «lehiarako abantaila» bihurtzeko helburua finkatu dute, eta, horretarako, «gizabanakoak bere gaitasunak ahalik eta gehien ustiatzea izan behar du prestakuntzaren xedeak», «lan-merkatuaren beharren arabera» betiere.



- Moderna Planak Administrazio Publikorako aldaketak ere aurreikusten ditu; hain zuzen ere, Administrazioa lehiakortasun-faktore eta produktibitate- zein eraginkortasun-eredu izan dadin eraldatu nahi du.

Hori lortzeko, Administrazioari funtzionamendu eraginkorra duen eta lehiakortasuna sustatzen duen enpresa-antolakunde gisako tratamendua emateko helburua finkatu dute. Helburu hori betetze aldera, barne-antolakuntza aldatzea, administrazio-prozedurak eta prozesuak berrikustea eta, aurrekontu-sistema aldatuz, administrazioak proiektuak lan egin dezan sustatzea da beraien asmoa.

Administrazioan lan egiten duten pertsonen buruz, «egokiak izan eta ondo prestatuta eta motibaturik egon behar» dutela diote; horrek hautapen- eta kontratazio-sistemak optimizatzea, atarramentua ebaluatzen diren sistemak ezartzea, etengabeko trebakuntzaren aldeko apustua egitea eta zereginen zein departamentuen arteko mugikortasuna bultzatzea leharke. Ildo horretan, «berehalako zereginen» artean, pertsona egokiak eskura edukitzea ahalbidetzeko kontratazio-eredu bat eta funtzionarioentzako pizgarri-sistema bat diseinatzea aipatzen du. Gainera, epe motzerako helburuen artean «langile publikoen estatutua malgutzea» eta «funtzionarioen biziarteko-marka ezabatzea» ezartzen dira.

Enpresa publikoei dagokionean, epe motzean «fusio prozesuak, pribatizazioak, absortzioak, etab.» eman beharko direla dio.

- I+G+b, ekintzailtza eta internazionalizazio alorretako ekintzen inguruan mintzatzean, Administrazioarako aurreikusten diren aldaketak nabarmendu daitezke, berriro ere: zehazki, «prozedura zurrun eta estandarretan» egin nahi dituzte aldaketak, erakundea berritzaile izan dadin.

Funtsean, enpresa- eta negozio-giroa sortzeko joera islatzen da, «enpresaria aberastasuna eta enplegua sortzen duen figura gisa sustatzeko eta onesteko».

- Azpiegituren esparruan, hori ere Moderna Planaren ardatz nagusietakotzat hartuta, energiarekin eta garraioarekin loturiko

azpiegiturak nabarmentzen dituzte, AHTa berariaz aipatuz.

Ekintza sektorial edo «apustu estrategikoei» dagokienez, energia berriztagarriak, nekazaritzako elikagaien industria, eraikuntza jasagarria, ingurumena, osasun-zerbitzuak, biomedikuntza eta beste hainbat azaltzen dira.

Azpitarratu behar da esparru horietako edozein aipatzen denean, negozio-ikuspuntutik egiten dela beti. Horrela, adibidez, ingurumenari buruz diotenez, «gero eta indar handiagoa hartzen ari da lehiakortasun-faktore gisa, bai eta, aldi berean, sektore ekonomiko guztientzat enpresa-negoziorako eta ondasun eta zerbitzuen ekoizpenerako aukera-sortzaile den aldetik ere».

Eta negozio hori gauzatzeko, sektore pribatua handitu egin behar da ezinbestez, espazio publikoari dagokionetik kenduz. Zentzu horretan, osasun-zerbitzuei buruz hitz egitean, «kudeaketarako eredu publiko-pribatu berri bat» aurreikusten dute.

## 4. ELAren balorazioa

1. Nafarroak 2030ean izan behar duenari buruz ikuspuntu bateratua dagoela sinestarazi nahi izatea onartu ezinezkoa da. ELAk jakin badaki enpresetan eta politika publikoetan interes kontrajarriak daudela, eta argi dago aplikatu beharreko politiken inguruan ez dagoela adostasunik. Jakin badakigu, halaber, gobernuen eta ugazaberiaren artean ituna dagoela, langileriaren kaltetan.
2. ELAren iritziz, pentsaezina da «Nafarroaren Garapen Ekonomikorako Eredu berri bati» buruz hitz egiten aritea, eta aberastasunaren banaketa, enplegu politikak, behin-behinekotasunaren aurkako borroka, gizarte-gastu urriegia, zerga-sistemaren bidegabekeria eta doikuntza-politikak ez aipatzea. Gai horiek ez agertzeak argi erakusten du gizarte-elkarrizketa deritzoten horretan ez direla jorrotzen gizarte-eredua aldatzeko funtsezkoak diren gaiak eta, aitzitik, langileei zuzenean kalte egiten dieten politikak babesten ari direla.

3. Moderna Planaren asmoa ez da Nafarroako eredu ekonomikoa aldatzea, pribatizazioaren bidez negozioa sustatu eta Planaren sinatzaileek baliabide publikoen kudeaketa pribatuan duten kuota handitzea baizik. ELAk gaitzetsi egiten du Moderna Plana sortarazi duen filosofia. Administrazio Publiko batek, beste erakunde batzuekin, baliabide eta eginkizun publikoak garatzeko eta kudeatzeko Fundazio pribatu baten sorrera ituntzek politikoa sozial eta publikoen kontra jotzen du.
4. Oraingo hau sektore publikoa suntsitzeko beste urrats bat da. Partida publikoei esleitu zaizkien baliabide ekonomikoak Fundazio pribatu batera desbideratzeaz ari dira hitz egiten dagoeneko. Hori guztia, gainera, propaganda faltsua eginez, Moderna Planak ez duela inolako kosturik izango ari baitira arrandiaz esaten.
5. Moderna Plana Administrazio Publikoko langile guztienganako eraso zuzena da. Administrazioa bera «enpresa erakunde moduan» antolatzea helburutzat jotzen du, eta honetarako «departamendu arteko mugikortasuna eta mugikortasun funtzionala sustatu» behar dela dio. ELArentzat onartezina da Administrazioa enpresa bihurtu nahi izatea, eta gainera, hau langileen eskubideen gain egitea.
6. Moderna Planaren egitura organikoak aukera handia ematen du Fundazioko postuetan plana diseinatu duten erakundeetatik hurbil dagoen jendea ipintzeko, inolako administrazio-kontrolrik gabe, demokrazia galbidera eramanez, alegia. Postu batzuk erakunde «fundatzaileek» eta beste batzuk pertsona «adituek» beteko dituztela behin eta berriz aipatzeak berretsi baino ez du egiten Moderna Plana bazkide mugiezinez osatutako eta baliabide publikoz zuzkituriko esparru pribatu bat dela.
7. Publiko izan beharko luketen eginkizunak garatzean, saihestu egiten dituzte administrazio-kontrolak eta Parlamentuaren kontrola, horrela irregulartasunak gertatzeko arriskua sortzen delarik. Erabateko ezezko biribila eman beharko lioke politikak era honetako planteamenduei. Sinatzaileek, Planean jasotako ekintzetan, kapital pribatuaren parte-hartzea aurreikusten duten arren, euren ez dute inongo kapitalik emateko konpromisorik hartzen. Izan ere, hasieran, Planaren finantzaketa osoa publikoa izango da. Eta hori aurrekontuko partida batzuetarako jasotako kapitala desbideratuz egingo da, aipatutako partida horiek «berrantolatuz», planaren testuak berak dioten moduan: «Moderna Planaren finantzaketa publikoaren inguruko filosofia orain dauden baliabideak birbideratzean datza».
8. Horrez gain, Moderna erakunde pribatua izateak aukera ematen du esparru publikoan garatu beharko lirakekeen eta fundazioak gauzatuko dituen eginkizunak garatzean euskara guztiz baztertzeko, gure hizkuntzaren aurkako gurutzadari bide eginez eta, informazioa ematean beste hizkuntza batzuk sustatuz -ingelesa, adibidez-.
9. Moderna Planarekin datorren propaganda guztia gorabehera, ezin da nafar gizartearentzako hobekuntzarik espero. Izan ere, Nafarroako interesa eta enpresarien beraien interesa nahasten baitira, egitura osoa negozio-asmoz eta enpresa-ikuspuntutik pentsatuz (ingurumenari edo osasunari buruz mintzatzean ere ari dira enpresa-ikuspuntutik). Ekintzek eta, beraz, Moderna Plan osoak ez dute inongo gizarte-ikuspunturik.
10. Moderna Plana onartzean, honek suposatzen duenarekin, UGT-k eta CCOO-ek langileriaren interesak alde batera uzten dituzte, gaur egungo politika neoliberalak objektiboki babesten dituen estrategia baten zerbitzura jarritz. Patronala eta eskubide sozial eta lan-eskubideak murrizten dituztenen eskutik doaz sindikatu hauek. Honela, langileontzat erabat kaltegarria den eredu baten gestioan partaide izatearen truke, bake soziala eskaintzen dute.
11. Akordio honek UPN-ren eta PSN-ren arteko aliantza agerian uzten du, ekintza-publikoa pribatizatu eta elkarren artean hurrengo 20 urteetan enpresari-elitearen interesen zerbitzura dagoen eredu kudeatzeko akordioa egin baitute.